

halaber

hala ere

Puntuazio-markak eta lokailuak
(zertzelada batzuk)

izan ere,

beraz

, ordea hortaz :

dena dela



halaber

hala ere

Zaila da puntuazio-marken gorabehera guztiak xehe-xehe jorratzea. Oraingo honetan, oso maiz erabiltzen diren lokailu batzuen puntuazio-gomendioak emango ditugu, unibertsitateko testugintzan aplikatzen ditugunak. Betiere jakinik badirela bestelako erabilerak idazle bakoitzaren estiloaren arabera.

Perpauis bakunak baino ez ditugu aztertuko; mendeko perpauisen puntuazioa beste fitxa batean jorratuko dugu.

• ordea hortaz •
,
dena dela

halaber

hala ere

Hona nola azaltzen duen Euskaltzaindiak zer diren lokailuak:

Sarritan perpausek bere eskuko izaten segi dezakete, nahiz eta ager daitekeen elementuren bat –lokailua, hain zuzen–, perpaus horiek elkarrekin duten lotura semantikoaren berri ematen diguna (...)

(18. or.)

Lokailu hauek nolabaiteko ñabardura ezartzen diote perpaus batek bestearekin duen erlazioari.

Baina perpaus pare horietako bakoitzeko bigarrenean ageri den lokailuak (...) perpaus horrek aurrekoarekin nolabaiteko lotura, erlazioa, duela esaten digu. Solas mailan perpaus horrek aurrekoarekin nolako lotura duen adieraziko digu, hortaz, lokailuak.

(19. or.)

Lokailuak: http://www.euskaltzaindia.net/dok/iker_jagon_tegiak/3812.pdf



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



Lokailu bidez loturiko perpausak alborakuntzaz elkartu ohi dira, eta haien artean puntua ([.]) edo puntu eta koma ([:]) jartzen dira:

- (...) erretinako zeluletan duen eraginaren ondoriozkoa izan ohi da, gehienbat, gaitza. **Hala ere**, arazo nagusia garunekoa zen, argi eta garbi.
- Pertsonaia laidogarri bat baino aukeratu zuen hogeigarren mendeak famatzeko; gustu bikainez hautatu zuen, **hala ere**, bere zientzialaririk gogokoena.

Bateragarriak dira, hala ere, juntagailuak (*eta, edo, baina...*) eta lokailuak:

- EDKak baditu, izan, printzipiozko arazo batzuk, teoria guztiz itxiztat hartuz gero (...), **baina, hala ere**, badira beste arazo batzuk Dirac kezkatzen zutenez besteko maila batekoak direnak...
- Ura kantitate kuantiko jakin batzuetan bakarrik etor daitekeelako ideia (...) eguneroko esperientziaren aurka doa; **eta, hala ere**, energiak halaxe jokatzen bide du molekulen mailan.

Puntuazio-markak eta lokailuak: har dezagun beraz lokailua

Perpausaren hasieran:

Beraz, (...)

(...) ; beraz, (...)

(...) , eta, beraz, (...)

Perpausean txertatua:

(...), beraz, (...)

Perpausaren bukaeran:

(...), beraz.

- **Ondorioz**, ez zegoen argi CFcek ba ote zuten zerikusirik behatutako galerekin.
- A plantak igorpenak 14 unitatetan murriztuko ditu; **beraz**, 986 igorriko du guztira.
- Zenbait atomo, hala nola kloroa (...), erreaktiboegiak dira bakarka egoteko, **eta**, **beraz**, molekula diatomikoak (...) osatuz agertuko dira gehienetan.
- Kasu jakin batean ezin da erabili, **eta**, **hori dela eta**, Arkimedesen emaitzen kontrakoa adierazten du.
- Eder behar du osatzen duten saiakerak elkarrengandik bereiz irakur daitezke; libre zara, **beraz**, gogoak ematen dizun ordenan heltzeko aleoi.
- Erabateko egitaraua dira, **beraz**.

Modu berean puntuatzen dira *gainera*, *bestalde*, *halaber*.

- *Gainera*, frogetara jotzeak ez du laguntzen galdera normatibo hutsen gaineko desadostasunak konpontzean.
- Klimak ez dio bakarrik jendeari zuzenean eragiten; *gainera*, gainontzeko ingurumen- eta ekologia-prozesu guztiei eragiten die, itxuraz klimarekin zerikusirik ez duten askori barne.
- Gehiegi dira, *eta*, *gainera*, aztergai aldakorra osatzen dute.
- Baziren, *gainera*, beste kontu batzuk.

Modu berean puntuatzen da *bestela*:

- **Bestela**, azkar asko antolatuko zuen Euklidesek postulatu sorta bat ere.
- Mahaian jokaera eta kokaleku finko eta beti-batekoak hartu behar ziren; **bestela**, ziapea har zezakeen mahonesa zelakoan...
- Ikusi, **bestela**, Ernesto Leichtenshneider-en bilduma pribatu aparta (Peruko Liman bila bedi gizona).
- (...) eta norberak egiten zion diagnostikoa bere buruari gehienetan, **edo, bestela**, lagunek edo familiak (...)
- (...), baina unibertso berri horiek nahitaez hartu behar dituzte aurrekoak ere beren baitan, edo haien ondoan kokatu beharra daukate, **bestela**.

Modu berean puntuatzen dira *hala ere, dena dela...*:

- **Dena dela**, udan, eguerdian, Gizen, ia bertikalak dira izpiak.
- Erdizka bada ere, berak badaki hori, baina ez da erabat jabetzen, **eta, dena dela**, ez du beste aukerarik.
- Perrettek, **hala eta guztiz ere**, uste zuen txori-dendara joan zenetik Arkakuso Merkatuko morroien eta Nofuturen arteko lokarri izan zela oharkabean Max.
- Erregulartasun hark errazagoa bihurtzen zuen irakurketa, **baina, nolanahi ere**, txirotzea zeritzon hark horri.
- Ikasle batek ikusi zuen argienik, **hala ere**, nola egiazta zitekeen.
- Lan aparta, noski; **ez, hala ere**, iraultzailea (...).

Modu berean puntuatzen da izan ere:

- **Izan ere**, zerga baten bidez espero daitezkeen murrizteak baimen-sistema baten bidezkoen berdinak dira, baimenaren prezioa eta zergarena berdinak direnean.
- Analogia horietako ez bata ez bestea dira zehatzak, ordea; **izan ere**, bai estalkiek eta bai berotegiek aire beroaren ihesa motelduz funtzionatzen dute batez ere, ez erradiazioari pasabidea eragotziz.


Modu berean puntuatzen da izan ere:

Izan ere,...

Perpasean tartekaturik ere agertzen da, inoiz, *izan ere* lokailua:

- Belarrian, *izan ere*, bada horren parekorik, mintz basilarreko eremu bakoitzak garaiera jakin bateko notari erantzuten baitio.

- *Izan ere*, zerga baten bidez espero daitezkeen murrizteak baimen-sistema baten bidezkoen berdinak dira, baimenaren prezioa eta zergarena berdinak direnean.



Adibide guztiak ZIO bildumako liburuetatik atereak dira.

